

Lan mundua euskalduntzen: hamar urte ondoren jasotako uztari errepasoa IMHn

ELGOIBARKO Makina Erremintaren Institutuak hamargarren urtez antolatuko du urriaren 7an euskara eta lan mundua uztartzen duen mintegia. Termometroa jarriko diote alor sozioekonomikoa euskalduntzeko prozesuari.

Horretarako hainbat eragilek euren iritzia emango du. Bestek beste ondokoak izango dira: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkari bat, DanobatGroup, Kontseilua, Laneki, Gaindegia eta IMH bera.

Hezkuntzaren eta lan munduaren artean zubi lana egiten duen ikasgarai garrantzitsuak tokia izango du beste behin, eta horrela,

Lanbide Heziketako Lantokiko prestakuntzan euskararen erabilera sustatzeko Gehitu proiektuaren 3. fasea azalduko dute. Ikasleen gehiengoak eskolan euskaraz ikasi eta lantokietan praktikak egiterakotan euskarari eusteko moduak bilatzen eta aurkitzen ari dira Gehiturren bidez.

Ondoren, enpresak, elkarteak eta aholkulariak garatzen ari diren praktika onak ezagutzeko parada izango da.

IMHren 30+10 mintegiaren antolatzaileak dira: IMH bera, HPS, Gipuzkoako Foru Aldundia, Elgoibarko Udala, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza eta Laneki.

Bahea

Xabier Gartzia Nafarroako AEK-ko koordinatzaileak *Noticias de Navarra* esanak:



“Erronka politikak ditugu Nafarroan. Nafarroako Gobernuan aldaketa eman da eta uste dut hizkuntza politikan aldaketa sakonak eman daitezkeela. Espero dezagun hurrengo lau urte hauetan euskara benetan ofiziala izatea eta normalizazioan aurrerapausoak ematea. Euskaraz bizi nahi dugunok, gure hizkuntza eskubideak bermatuak edukitzea Tuteran, Elizondon edo Nafarroako edozein tokitan. Hasteko zerbitzu publikoetan, eta jarraitzeko, edozein zerbitzutan, izan denda bat edo izan liburutegi bat. Nahi duenak euskaraz egin ahal izatea”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Kapitalismoaren kontrako karabana feminista

EMAKUMEEN MUNDU MARTXAK 1995ean Quebec-en egindako emakumeen martxan du jatorria eta mundu osora 2000. urtean zabaldutako; orduko hartan Euskal Herriko mugimendu feministak ere parte hartu zuen. Egunotan, IV. Nazioarteko Ekintza egiten ari dira *Gure gorputzak, gure lurraldeak* lelopean. Kapitalismoaren kontrako kutsu nabarmena du oraingoak. Martxoaren 8an irten zen karabana feminista Kurdistandik eta Europan barrena ibiliko da urriaren 17ra arte. Euskal Herrira irailaren 28an iritsi eta urriaren 4ra arte egongo da. Emakumeek ondo dakite euren zapalkuntzaren atzean kapitalismoa dagoela, ez genero edo sexuaren ikuspegitik soilik, baita ekonomiaren arloan ere: langabezia, pobrezia, prekarietatea, diskriminazioa eta desberdintasunak sortzen ditu sistema horrek.

Euskal Herriko mugimendu feministak bizitza oinarrian eta zentroan jarriko duen eredu jasangarriagoaren alde egiten du, alde batera utziz etekinak handitzea baizik bilatzen ez duen merkatuaren logika. Argitara atera behar dira ohikoan ikusezin bihurtutako lanak, gure egunerokoa zutik mantentzen duten

horiek, eta sistema kapitalista heteropatriarkal honetan ezkatututa daudenak. Lan horiek historikoki emakumeen bizkar utzi izan dira, derrigortuta eta dohai-nik. Generoa, sistema sozioekonomikoaren aldagarri gisa hartu beharko litzateke, generoen arteko desberdintasuna kapitalismoa oinarritzen den sistemaren ardatz estrukturala baita momentu honetan.

Mugimendu horrek egitura sozial berria sortu nahi du, pertsonengan eta euren behar eta gaitasunengan oinarritua, ez kapitalaren pilaketan eta etekin gosean. Aberastasunaren banaketa bidezkoa, jasangarria eta bideragarria izango luke egitura berriak, oraingo eta geroke pertsona guztientzat bizimodu duina bertutuko lukeena. Ezaugarri horiek dituen karabana feminista eta antikapitalistak elkartasun eta babes osoa merezi du gure herrietatik igarotzen denean, berarekin dakartzan aldarrikapenak nork bere egin eta praktikan jarritz. Horiek konkistatzen lagundu behar dugu.

Juan Mari Arregi